

## Langilek bihar ospatuko du ikastolako festa eguna

■ 'Langile Eguna' ikasle, irakasle eta gurasoak biltzen dituen urteroko festa da  
■ Euria ari badu ekitaldiak Santa Barbarako ikastetxean egingo dira.



Langile ikasleak iazko Langile Egunean, bazkalondoko ikuskizunari begira. Argazkia (X. Allur)

LANGILE ikastolak larunbatean ospatuko du urteroko jaia. Aurtengoa 28garrena izango da.

### MUSIKA EMANALDIA

Goizetik hasiko da festa eta hamarretarako laubidietako ikasleek musika ikuskizuna prestatu dute. Emanaldia Tilosetan izango da eta dena borobil ateratzeko Musika eskolako musikariren laguntza ere izango dute.

Kontzertua bukatzean, denak Errotaburura, errota nola

ibiltzen den ikustera. Errotaburuko errotak ere badu bere historia. XVIIgarren mende arte Hernanikoa izan zen, baina, borroka luzeak eta gero, Urrietaren esku gelditu zen.

### HAMAIKETAKOIA ETA BAZKARIA

Errotaburutik bueltan, Portuko plazan, hamaiketakoia egingo dute. Ordubiak aldera, be-rriz, bazkaria Tilosetan. Ikasle, irakasle eta guraso, denak 600 lagun inguru biltzen dira bazkarira. Eta ikasle-

en pozerako, irakasleak aritzen dira serbitzen.

15:30etatik aurrera txiki-entzako jolasak izango dira: gaztelu puzgarriak, malabar tailerrak...

Bazkalondoko festa Santa Barbarako bertsolariak hasiko dute. Ondorenerako, guraso talde batek zerbait prestatu du denak dantzan jarriarazteko. Bukatzeko Izotz taldeak jarriko du festa.

Euria balitz, kiroldegian egitekoa zen festa; itxita dagoenez, Santa Barbaran egingo da.

## 'Batasuna' prozesuko bilera, larunbatean

■ 'Bateginez' txostenari egindako zuzenketak eztabaidatu eta botatuko dira ■ Biterin, 10:00etan.

BATASUNA prosesua sartu da azken fasean. Orain hila-bete batzuk, Bateginez txostena hautatu zen erakunde berriaren egitura eta bide politikoa finkatzeko. Ondoren txosten horri zuzenketak egiteko epea zabaldu zen eta zuzenketa horiek eztabaidatu eta bozkatu dira larunbateko bileran.

Hernaniko Batasuna Talde Eragileak dionez, oraindik zuzenketak jaso ez dituenak Garin tabernan hartu litzazke.

### ZUZENDARITZA ORGANOIA

Batasunako Talde Eragileak Kronikari jakinarazi dionez, Erakunde politikoa berria ekainaren 23an sortuko da, Iruñean. Orain, ekainaren 3 arte, Erakunde berriaren organoetarako pertsonak proposatzeko epea zabalik dago: bai nazio mailarako, bai herrialderako eta baita Hernaniko zuendaritzarako ere. Proposamenik duenak Garin tabernan utzi edo 943-550005. □

### SANTA BARBARA ELKARTEA

## Getariko txakolin probaketa

■ Santa Barbara elkarteak urtero antolatzen du Getariko txakolin probaketa. Aurten ere trago batzuk jo nahi dituenak, bihar eguerdiko ordubatean elkartera joatea nahikoa du.

### UDALTZAINGOA

## Latsubetik Antziolara, itxia

■ Ertzainen rotodatik Antziolarako kruzerako tartea konpontzen ari dira. Lanak bukatzeko modurik izan ez denez, gaur ere itxita egongo da.

Bestalde, Axalan ezin da herri barrurako kruzea hartu, Galarreta aldetik etorri ezker. Egin behar dena da, Mandazubiko rotondaraino joan, eta bueltakoan sartu.



«Jose Langile Deuna» Salesiar Ikastetxea  
Escuelas salesianas «San Jos Obrero»  
LH-ko Goi Mailako Institutua

Ergoien auzoa, 6  
20130 Urnieta

Tel.: 943 55 17 89  
Fax: 943 33 10 59

### BATXILERGOAK - LH-ko ZIKLOAK

2001-2002 IKASTURTEA

#### BATXILERGOAK:

TEKNOLOGIA - NATUR eta OSASUN ZIENTZIAK - GIZA ZIENTZITAK

#### ERDI eta GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- Makineria eta linea-eroanbideen instalaz. eta mantenimendu elektromekanikoa (Erdi M.)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak. (Erdi Maila)
- Argitalpen diseinua eta produkzioa (Goi Maila).
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (Goi Maila).
- Grafikagintzaren produkzioa (Goi Maila).
- Instalazio elektroteknikoak (Goi Maila).

#### GURE ESKAINTZA:

- Ikastetxe hitzartua
- D eredua: Batxilergoa
- Helebiduna: Lanbide H.
- Jangela
- Baliabide eguneratuak
- Goizeko ordutegia
- Kultur, kirol eta musika ekintzak.

- ✓ PRAKTIKAK ENPRESETAN (atzerrian ere bai)
- ✓ LANGAIren Zentru laguntzailea
- ✓ GRAFIKAGINTZAN babespeko ikastetxea
- ✓ INEMeko zentru laguntzaile homologatua
- ✓ AUTOCAD eta CADDY baimendutako zentrua

Ikastetxea ikusteko aukera: Ekainaren 6ean - arratsaldeko 7etan

### LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera  5.000 pta  
 25.000 pta  
 \_\_\_\_\_ pta

HERNANIK  
kronika

Izena \_\_\_\_\_ Abizenak \_\_\_\_\_

N.A.N / N.I.F \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_

P. kodea \_\_\_\_\_ Herria \_\_\_\_\_ Herrialdea \_\_\_\_\_ Tel. \_\_\_\_\_

Banku edo aurrezki kutxa \_\_\_\_\_ Titularra \_\_\_\_\_

Titularren helbidea \_\_\_\_\_

Entitateak  Sukurtsala  Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2  
KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

**BONOA UZTEKO:** Kronika, Dobera, Pana, Iurretagoiena, Konde eta Zinkoenean.

Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-mailez (kronika@topagunea.com) egin dezakezu.

Bai, ezta?

**HORBEL**

TABERNA - JATETXEA  
BOKATAK KAZUELITAK PINTXOAK  
LIZEAGA 4 - Tel. 943 33 33 95 - HERNANI

**DENDA ARKA**

- dekorazioa
- altzariak
- block-ateak
- erreformak
- leihoak
- eskailerak

**ERAKUSKETA**  
Kardaberaz kalea 41  
Tel. eta Faxe: 943 333 487  
E-mail: mariapuy@euskalnet.net  
20120 HERNANI

## Txupinazioa pronto Floridan, Mendekosteak hasteko

■ 18:00etan botako da txupinazioa ■ Gauean: Orquesta Miramarrekin dantzaldia izango da, goizalde arte ■ Igandean bukatuko dira



Tanborrada da Floridako jaietako ekitaldirik garrantzitsuenetakoa. (Argazkia: Biyok)

GAUR arratsaldean hasiko dira Floridako Mendekoste jaiak. Arratsaldeko 18:00etan botako dute lehenengo etxe-fuegoa eta astelehen goizalde arte festa giroa izango da Floridan nagusi.

Jai batzordeak auzoko eta herriko jendeari festara animatu dadila eskatzen dio. Eta eguraldiari zer esanik ez, azken urteetan ez baitu gehiegi lagundu, eta festa erdi-erditik moztu bai.

**22GARRENA**  
1979an egin zituzten lehenengoz Floridako festak, jai batzordeak interneten jarri duen web orriak dioenez.

Txupinazioaren ondoren, erraldoiak, buruhandiak eta trikitilariak ibiliko dira auzoan barrena festa giroa jartzen. 19:00etan gazteen mus txapelketa egingo da Etxeberri elkartean. 20:30etan, kartel lehiaketara aurkeztu diren lanen erakusketa eta sari banaketa. Os-

tirala errematateko *Orkestra Miramarrek* dantzaldia eskainiko du Frontoian.

**UMEEN EGUNA, BIHAR**  
Mendekoste jaietako egunik fuerteenak larunbata eta igandea izango dira. Bihar, haurren eguna izango da eta goiz-goizetik izango dituzte berentzako ekitaldiak: jokoak, jolas-parkea, pailazoak... Gauean, berriaz, helduen tanborrada eta rock kontzertuak. □

### BERTSOLARITZA

## Hernaniarrak txapelaren bila, gaur, Eskolarteko finalean

■ Haundietan: Joxe Angel Aranburu eta Agin Rezola; txikietan Aitor Larreta, Jon Otxotorena, eta Gaztelumendi anaiek kantatuko dute ■ Beasainen 16:00etan



Joxe Angel Aranburu kantari eta Joseba Aizpurua pentsakor.

GAUR Beasaingo polikiroldegian jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari finala. Bertan, Hernaniko bertso eskolak errepresentazio nabarmena izango du. Helduen mailan, Joxe Angel Aranburu eta Agin Rezola arituko dira. Bertsolariak ofiotan eta bakarka kantatu beharko dute. Zortzik kantatuko dute eta lehenengo biak Euskal Herriko finalera joango dira.

**IAZKO TXAPELDUNAK**  
Umeen taldean Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiek, Aitor Larreta eta Jon Otxotorena daude. Iaz txapela Hernanira ekarri zuten eta aurten ere badituzte aukera. Lau taldek kantatuko dute eta puntuazio altuena lortzen duen bertsolaria joango da Euskal Herrikora. □

## Ertzaintzak bi gazte atxilotu ditu 3 kotxe osteagatik

■ Bi gazte hauek 15 urte dituzte eta atzerritarrak dira  
■ Igandetik astelehenerako gauean lapurtu zituzten kotxeak Irun, Usurbil eta Hernanin.

### ELIZATXO IKASTOLA

## 5 eta 6garren mailakoak gaur jeitsiko dira Elizatxora

■ Hiru urtez egon dira *Lizarragan* eta Elizatxoko egoitza berriera joango dira gaur goizean. Bederatzietan *Lizarragan* bildu eta 66 ikasle eta lau irakasleak elkarrekin jeitsiko dira.




Elizatxoko ikasleak *Lizarrago* klasean, azken egunetan.

### BERRIAK

## 225 kiloko txekorra 'Haragiaren Egunerako'

■ Bihar izango da, 20:00etan, Gudari plazan.



Iazko txekorra erreta, pintxotan jan aurretik.

BERRIAK elkarteak urtero antolatzen du Haragi Eguna, jendea Hernanin erostera bultzatzeko. Karlos Ibarrondo elorriotarrak erreko du txekorra:

goizeko 06:00etan hasi eta 19:00etarako jateko moduan. Haragi pintxoez gain, sagardo eta ardoa ere izango dira sabelari gustoa emateko. □

### IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:30etan: Miel Guri kontsumoari buruz ariko da 11:40etan: 3. Munduko proiektuetarako udalak bideratutako laguntzei buruz hizketan 12:00etan: Atzo Udalean AHTri buruz hitzegindakoa aztertuko da. 12:30etan: Asier Ormazabal preso hernaniarrari Draguignakeko espetxean egindako elkarriketa entzungo da.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093  
▶Udaltzaingoa: 943 333288  
▶DYA: 943 464622  
▶Autobusak: 943 556662  
▶Anbulatorioa: 943 557750  
▶Jokalaria anonimoak 943 331103

#### ⚡ FARMAZIAK

▶Egunez: Irigoien Elkano 2 ☎ 943 552087  
▶Gauetz: Urbistondo Lasarte. San Franzisko 1, B ☎ 943 366567